

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA/
U.P.V.-REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/
EUSKALTZAINDIA:**

LIBURU AURKEZPENA

*Bilbo, Euskaltzaindiaren
egoitza, 1997-X-16*

LIBURU AURKEZPENA

Bilbon, egoitz, 1997-X-16

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua

Jaun-andereak, agur!

Egun haundi bat gaurko eguna Euskaltzaindiarentzat eta Euskal Herriko Unibertsitatearentzat hiru liburu aurkezten ditugulakotz duela orain lan urte sinatu genuen hitzarmenari esker. Ene ondoan daude Miren Azkarate andorea, Euskal Herriko Unibertsitatearen izenean etorria, errektore orde izanez eta denbora berean Euskaltzaindian daukagun euskaltzain andere bakarra eta hiru liburuen egilea, Pedro de Yrizar jauna, euskaltzain ohorezkoa, Maria Angeles Libano anderea Euskal Herriko Unibertsitateko erakaslea eta Xabier Alberdi hau ere Euskal Herriko Unibertsitateko erakaslea.

Ikertze lanetan ari direnek badakite bere balio osoa ukaiten dutela agertzen direlarik edo artikulutan edo liburutan. Hain zuzen, hauxe da Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen xedea, hauxe da gaur egiten dena.

Xabier Alberdi-k aurkezten du bere tesiak edo bederen bere tesiaren laburpena Iker 9 liburu honetan. Titulua: *Euskararen tratamenduak: erabilera eta “gai cum laude”-rekin onartua*.

Maria Angeles Libano onomastikako ikerketetan sartua da. Erdi Aroko toponimoak eskaientzen ditu jadanik publikatu dugularik lehenbiziko liburukia Onomasticon Vasconiae sortan *Toponimia Medieval en el País Vasco* tituluarekin. Bigarren liburukia aurkezten du gaur.

Badakigu zerlan egiten duen Pedro de Yrizar jaunak. Aspaldian ezagutzen dugu; euskal aditzaz arduratzan da, jadanik zortzi liburu agertu ditugulakotz eskainiz zer den aditza euskalkietan. Lehenbizikoa izan zen *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano* bi liburukan; bigarrena *Morfología del verbo auxiliar vizcaino*, hori ere bi liburukan; hirugarrena *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional* bi liburukan ere, 6 liburuki beraz, eta gero *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional* liburuki bat, azkena delarik *Morfología del verbo auxiliar roncalés*. Gaur bederatzigarrrena aurkezten du Pedro de Yrizar jaunak *Morfología del verbo auxiliar labortano*.

Hemen, komunikabideen eta denen aintzinean nahi nuke agertu ere bozkarioa eta, denbora berean, goretsi azken urte hauetan egiten diren ikerlanak.

Bozkario eta goresmen ikusiz zein emankorra den Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmena.

Bozkario eta goresmen, hitzarmen horri esker, agertzen baitira hiru liburu gotor salatzen dutenak nola doan aurrera ikerkuntza Euskal Herrian, goresmenik bizienak me-rezi dituztelarik Pedro de Yrizar jaunak, Marfa Angeles Libano andereak eta Xabier Alberdi jaunak.

Eskerrak nahi nizkioke bihurtu Euskaltzaindiko argitalpen eragileari, Rikardo Badiola Uriarte-ri hiru autoreekin eta irarkolarekin egin duen lan ixila eta ederraren gatik.

EUSKARAREN TRATAMENDUAK: ERABILERA (Iker 9)

Bilbo, 1997-X-16

Xabier Alberdi

Lehenengo eta behin, eskerrak eman behar dizkiet Euskal Herriko Unibertsitateari eta Euskaltzaindiari, bion arteko lankidetza-hitzarmenari esker gauzatu delako *Euskararen Tratamenduak: Erabilera liburuaren argitalpena*.

1996an argitaratu zen eta gaur aurkeztu behar dugun liburu hau, 1994an EHuko Euskal Filologia Sailean irakurritako doktorego-tesi baten laburpena da. Bihoazkie hemendik nire eskerrik beroenak irakurketa-ekitaldi hartan epaimahaia osatu zuten irakasleei (Patxi Goenaga, Befiat Oihartzabal, Rudolf de Rijk, Ibon Sarasola eta Koldo Zuazo), tesia zuzendu zidan Pello Salaburu irakasleari, eta orobat, ikerlanean eta argitalpenean lagundu zidaten guztiei.

Liburu honetan euskararen tratamenduak (hitanoa, eztabada, beroriketa, zutano eta xuka alokutibo eta ez-alokutiboak) aztertu ditut eta azterketa horretan tratamenduen era-bilerari lotu natzaio batik bat: hau da, egungo euskara mintzatuan dauden tratamendu-usarioak deskribatzen ahalegindu naiz. Dialektologia, linguistika eta soziolinguistikaren artean koka daitekeen ikerlana da, beraz.

Metodologiari dagokionez, datu-bilketa inuesta bidezkoa izan zen ikerketa sinkronikoan. Guztira 210 lekuko elkarritzetatu genituen, aurretiaz hartarako prestaturiko galdekitzun batez baliaturik.

Liburua bi zatitan egituratuta dago. Lehenak, “marko teoriko” izenburu orokorraz bataiatu dugunak, hiru atal nagusi ditu:

— Lehen kapituluan (“Eredu teorikoak eta ikerketa empirikoak”), gai honen inguruko ekarpen teoriko oinarrizkoak aztertu dira;

— 2. kapituluan (“Tratamendu-sistemak: munduko zenbait hizkuntza”), erromantzeetatik hasita, hamasei bat hizkuntzaren berri eskaintzen da, Asiako sortaldeko kasu jakingarri batzuk (japoniera, koreera) ahaztu gabe;

— 3. kapitulua (“Beste hizkuntzak eta euskara”), azkenik, behin-behineko halako hurbilpen-saioa dugu euskal tratamenduei buruzko ikuspegia diakronikorako eta tipologikorako.

Bigarren zatia, euskal tratamenduen erabileraz egindako ikerketa sinkronikoari dagokio eta hurrengo atalez osatuta dago:

— 4. kapitulua (“Ikerketaren nondik norakoak”) ikerketaren metodologiari eskainita dago;

- 5. kapitulua (“Emaitzen azterketa orokorra”), galdekizunaren bidez lorturiko emaitzen azterketa orokorra da;
- 6.ean (“Tratamendu bakoitzaren eremu”), tratamendu bakoitzaren eremu dialektala zedarritzen saiatu gara;
- 7.ean (“Ekialdeko behenafarreraren bereizgarria: xuka alokutiboa eta bere balio pragmatikoa”), xuka alokutiboen balio pragmatikoa dihardugu;
- 8.ean (“Hiketaren erabilera: euskalkien arteko konparaketa”), hikako usario dialektal desberdinei buruz ari gara;
- 9.ean (“Emaitzen azterketa sexu eta adinaren arabera”), sexuaren eta adinaren arabera arakatu dira emaitzak;
- 10. kapitulua (“Tratamendu-sistemak: mendebaldea/ ekialdea”), azkenik, euskal tratamendu-sistema nagusien azterketa da.

Esan beharrik ez dago ez dugula agortu ikergaia; gehienez ere, zenbait ikerbide jorratzera mugatuta gara. Ondorioz, zenbait gai lanketa xeheago eta sakonagoen zain geratzen direlakoan gaude.

Ondorio batzuk

Lehenik, euskal tratamenduen gaia diakroniarenean eta tipologiaren argitan aztertu dugu. Eta alde horretatik hau da lehen ondorio orokorra: oro har, euskal tratamendu-izenordainen bilakaera, Headek (1978) hizkuntza-unibertsal gisa aurkeztu dituen joeren arabera burutu da.

Tratamendu guztiak kontuan harturik, honako hurrenkera diakronikoa eman daitete: 1) antzina batean hitanoa izango zen tratamendu bakarra; 2) ondoren, *zu* izenordainaren singulartzeaz hitanoa/eztabada (T/V) bereizketa sortuko zen; 3) hurrengo berrikuntza zutanoarena da; 4) beranduago, XVII. mendean-edo, beroriketa sortuko zen; 5) eta azkenik, XIX. mendean edo agian zerbaite lehenago, xuka alokutiboa.

Euskaraz, komunzaduraren ondorioz tratamendu-hautaketa nahitaez agertu behar da aditz jokatuaren inflexioan. Eta alde horretatik, ezin ukatuzkoa da euskal komunzadura-sisteman berezitasuna: batetik lagunarteko tratamenduan solaskidearen sexua bereizten delako; bestetik, aditz-joko alokutiboen bidez, bigarren pertsonareniko komunzadura bigarren pertsona argumentalera mugatuta ez dagoelako. Hika, zuka eta xuka-kako aditz-joko alokutiboa euskararen bereizgarri nagusietako bat dira inolako zalan-tzarak gabe.

Gure ikerlanaren bigarren gunea euskal tratamenduen erabilerari buruzko ikerketa sinkronikoa izan da. Euskal tratamendu-usarioen lehen gauza harrigarria familiaren es-parruan maila desberdinako artean irauten duen joera asimetrikoa (*hi/zu*, *hi/xu*, *xu/zu*) da.

Oro har, familiaren barruko tratamendu-usario markatugabeen berri emateko, gutxienez, ondoko aldagai nagusiak kontuan hartu behar dira: adina, sexua, ahaidetasun-maila eta harremanaren maiztasuna. Familiaren eremutik kanpo, honako hauek dira al-

dagai nagusiak: kidetasuna, adiskidetasuna, adina, sexua eta maila. Edozein kasutan, hitanoa tratamendu markatua da.

Iraganean boterezko desberdintasunak kodetzeko joera (T-V) egun baino askoz handiagoa izan zela onartuz gero, badirudi, erdizka bederen, Brown eta Gilmanen (1960) lehen hipotesi diakronikoa betetzen ari dela gaurko euskaran: familiatik kanpo garbiro ageri da zuketa simetrikoranzko joera (V-V); eta familiaren eremuan “boterearen araberako semantika” deiturikoaren aztarnak ugari diren arren (ugariegiak inguruko hizkuntzetakoan aldean), V-Vranzko joera garbia ikusten da neskekiko harremanetan. BG ereduaren bigarren hipotesi diakronikoari dagokionez, ez dirudi inola ere T-T orokortzeko bidean dagoenik; aitzitik, usario simetrikoa bietatik (T-T/V-V) bat nagusitze-kotan, itxura guztien arabera, V-V nagusituko litzateke.

Vren aldean, hitanoa tratamendu-aukera markatutzat jo behar bada, Vren aldean, hitanoa tratamendu-aukera markatutzat jo behar bada, toketarekin alderatz gero beste hainbeste esan genezake noketari buruz. Hau da, hiketa biak —toketa eta noketa— lagunarteko tratamenduak izanik ere, ez dira zeharo parekoak, nolabait esatearren noketa “lagunartekoagoa” delako.

Beroriketa hikako tratamendu biak baino are markatuagoa da. Mugaz bestaldean ezezaguna den tratamendu hau galzorian dago, zahar-zahar batzuetatik kanpo inor gutxi erabiltzen duelako. Tratamendu honi asimetria datxekio; eta seguru asko izaera asimetriko horrek bere zabalkundearen aurka jokatuko zuen. Bere iraganaz ezer gutxi da-kigun arren, azken mende honetako galtze-bilakaera azkarra ikusita, zalantzak ditugu beroriketak inoiz erro sakonak izan ote dituen euskal gizartearen.

XX. mendearren bukaeran, funtsean, zutik dirau Bonapartek duela mende bat baino gehiago sortaldeko euskalkietako tratamendu-eremuez emandako ikuspegi orokorrak. Geure inkestagintzaren bidez, frogatutzat jotzen dugu Bonaparteren zedarriketa orokorra, zenbait xehetasunekin bada ere.

Xuka alokutiboaaren balioari bagagozkio, lehenik, esan beharra dago tratamendu “familiarteko” dela, eta hori hitzaren zentzu hertsienean; bigarrenik, salbuespenak salbuespen (ezkondu eta ezkongaien kasuan bezala edo bestelakoetan Garaziko eskualdean), emakumezkoei zuzendutako tratamendua dela nabarmendu behar da. Hala ere, Bonaparteren garaitik hona asko areagotu da xukako joera eta gaur egun, noketaren ordezkapena eta xukaren aldeko joera ez da Arberoako hizkeraren ezaugarria, gertakari nahiko orokorra baizik.

Euskarak sor zitzakeen zortzi tratamenduetatik sei besterik ez ditu garatu: hitanoa (tokanoka alokutiboa), eztabada, beroriketa, zutanoa (alokutiboa), xuka (alokutiboa) eta xuka ez-alokutiboa. Ez dago beroriketa alokutiborik eta, kontradibideren bat edo beste gorabehera, hitano ez-alokutiborik ere ez.

Sistema eta azpisistemak hurrengo bost tipo nagusietara bil daitezke:

— Lehena, L, MBN, Z eta Amikuze biltzen dituen sistema bikoitza, *HI* eta *ZU* izenordainetan oinarritua.

— Bigarrena, mendebaldeko euskalkiak biltzen dituen sistema hirukoitza, *HI*, *ZU* eta *BERORI* izenordainez hornitua.

— Hirugarrena, Garaziko eskualdeari eta aezkerari dagokion sistema hirukoitzak (leku batzuetan inoiz laukoitza izan daitekeena), *HI* meharraz, *XU* laxo-zabal eta kortsiazkoaz eta *ZU* mehar-errespetuzkoaz osatua.

— Laugarrena gainerako EBNei dagokie eta formaz aurreko bezalakoxea bada ere, erabileraZ *XU* mugatuago batez eta *ZU* zabalagoaz bereizten da aurreko EBNtik.

— Bosgarrena, azkenik, erronkarierarena da eta guztiz berezia da aurrekoen aldean, *ZU* alokutibo/*ZU* ez-alokutibo aurkakotasunean oinarritzen den sistema laukoitzaren jabe delako (hitanoa, zutanoa, eztabada eta beroriketa).

Bestalde, etorkizunari begira joera, tratamendu-sistema korapilatuak bakuntzekoa izango da eta ikuspegi horretatik, hitanoak irauten duen neurrian, funtsean bi tratamendu-sistema nagusitzen ari direla ematen du:

— EBNzkoa, *HI*, *XU* (zabalago edo meharragoa) eta *ZU* (zabalago edo meharragoa) hirukotean oinarritua, alde batetik.

— Gainerako euskalkienetik, bestetik, *HI* eta *ZU* bikoiztasunaz osatua.

USO DE LOS TRATAMIENTOS EN EUSKERA

Resumen

Este libro trata sobre el uso de los tratamientos (“tuteo, usteo, voseo...”) en vasconce. El trabajo está estructurado en dos partes. La primera corresponde a lo que hemos denominado “marco teórico” y consta de tres capítulos: en el primero (“Marco teórico y estudios empíricos”) se han recogido algunas aportaciones fundamentales para el estudio teórico del uso de los tratamientos lingüísticos; en el segundo (“Sistemas de tratamiento: varias lenguas”), se ofrece información sobre dieciseis lenguas, comenzando por las románicas, pero sin olvidar algunos casos llamativos del este de Asia (japonés y coreano); el tercer capítulo (“Las demás lenguas y el euskara”), pretende ser una primera aproximación provisional al estudio diacrónico y tipológico de los tratamientos en euskara.

La segunda parte corresponde al estudio sincrónico sobre el uso actual de los tratamientos en euskara y es fruto de la información recabada sobre el tema entre 210 hablantes de toda la geografía vasca que hacen uso del tuteo; está compuesta de los siguientes capítulos: en el capítulo cuarto se explica la metodología utilizada en la investigación; el capítulo quinto es un análisis general de los datos recogidos; en el capítulo sexto (“Área lingüística de cada tratamiento”) trato delimitar la extensión dialectal de cada uno de los tratamientos; el capítulo séptimo (“Rasgo diferencial del bajonavarro oriental: xuka alocutivo y su valor pragmático”) trata sobre el valor pragmático-social del tratamiento xuketa; el capítulo octavo (“Uso del tuteo: comparación interdialectal”) estudia posibles diferencias dialectales en el uso del tuteo; en el capítulo noveno se estudian los datos obtenidos en función de las variables edad y sexo; y el capítulo décimo (“Sistemas de tratamiento: dialectos occidentales/dialectos orientales”) ofrece un estudio de los distintos sistemas dialectales de tratamiento existentes en el euskara actual.

MORFOLOGIA DEL VERBO AUXILIAR LABORTANO

AURKEZPENA

Bilbo, 1997-X-16

Pedro de Yrizar

Jaun-andereok: gaizki nabil begietatik eta ez naiz gauza asko irakurtzeko. Lehenbizi eskerrak Euskaltzaindiari eta bere buru den Jean Haritschelarri. Eskerrak Euskal Herriko Unibertsitateari eta bere errektoreari, Pello Salabururi, berari esker izan da posible liburu hau argitaratzea. Eskerrak Koldo Artolari berau ibili da herriz-herritara auzunez-aizune, adizkiak bilduaz eta baita ere gai honetan ibili diren guztiei. Eta danon gainetik Jaungoikoari, osasunarekin gorde nauelako orain arte.

Gaurko egunean aurkezten dugun 9. tomoa, aditz laguntzaileari buruz egiten ari naizen azterketa da. 10. tomoa ere bukatuta dago, hemen Euskaltzaindian argitaratzeko prest, dirua bakarrak falta da.

Gaurko tomoa honetan ikergaia lapurteraren aditz laguntzailea da.

Printze Bonapartek lapurtera bi azpieuskalkietan zatitu zuen, berezkoa eta nahastua, nik beste euskalki bat gaineratu dut, Baztangoa, Elizondoko barietate bakarrari Ipar Goi Nafarratik ekarria. Berezko azpieuskalkiak hiru barietate zituen: Sarakoa, Ainhoakoa eta Donibane Lohizunekoa, Azpieuskalki nahastuak barietate bakarra zuen: Arrangoitzeko barietatea. Gut batez ere, Koldo arduradunaren azterketaren ondoan, ikusi dugu Bonaparteren barietate bakoitzean badirela ezberdintasunak herri batetik bestera eta erabaki dugu barietate horiek zatitzea, hara hor gure sailkapena: Sarako barietatea, 5 azpibaritetean zatitu dugu: berezkoa, Senperekoa, Ahetzekoa, Zugarramurdikoa eta Urdazubikoa. Ainhoako barietatea ez dugu zatitu. Donibane Lohizuneko barietatea, 3 azpibaritetan zatitu dugu: berezkoa, Iparraldekoa eta Hegoaldekoa. Arrangoitzeko barietatea zatitu dugu 2 azpibaritetan: berezkoa eta Arbonakoa. Elizondoko barietatea zatitu dugu 3 azpibaritetan: berezkoa, Helgoaldekoa eta Ipar Mendebaldekoa.

Horrela Bonaparteren 4 barietateak, orain dira 14 gure azpibaritateak, Baztango hirurak sartuaz.

Azpibaritate bakoitzak baditu bi mapa, sarrerak, iturburuak, koadroak eta oharke-tak.

* * *

Sras. y Sres.:

Ante todo quiero expresar mi agradecimiento a la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia y a su presidente Jean Haritschelhar, a la Universidad del País Vasco y a su rector Pello Salaburu, sin cuya colaboración no hubiera sido posible esta publicación. A Koldo Artola que ha recogido de pueblo en pueblo y de barrio en barrio las distintas formas verbales. También a todos los que han intervenido en este trabajo y sobre todo a Dios que me ha permitido llegar con salud hasta este momento.

Hoy presentamos el 9.^º tomo de nuestra obra sobre el verbo auxiliar vasco. El tomo 10 también concluido, está en poder de esta Academia, y completamente dispuesto para su publicación, solamente falta el dinero necesario. En el tomo que hoy presentamos se recoge el verbo auxiliar labortano. El Príncipe Bonaparte dividió este dialecto en dos subdialectos, el propio y el libre. Nosotros hemos añadido otro subdialecto, el del Baztán, que hemos excluido del dialecto alto navarro septentrional. Tras las exploraciones realizadas por Koldo Artola, hemos llegado a la conclusión que existen diferencias sensibles entre las formas verbales empleadas en pueblos incluidos en una misma de algunas de las variedades bonapartianas. Por ello hemos dividido la variedad de Sara en 5 subvariedades: Sara, Saint-Pée-sur Nivelle, Ahetze, Zugarramurdi y Urdax. No hemos dividido la variedad de Ainhoa, constituida por una sola comuna. La variedad de San Juan de Luz, la hemos dividido en tres subvariedades: propia, septentrional y meridional. La variedad de Arcangues? ha sido dividida en dos subvariedades: propia y la de Arbona. La variedad de Elizondo, subdialecto del Baztán, la hemos dividido en tres subvariedades: propia, meridional y nor-occidental. De esta manera las 4 variedades bonapartianas del labortano, se han convertido en 14 subvariedades, incluidas las tres del Baztán. Cada subvariedad contiene dos mapas: introducción, fuentes, cuadros y observaciones.

Muchas gracias.

TOPONIMIA MEDIEVAL EN EL PAÍS VASCO **(LETRAS B, C, CH, Ç, D, E, F, G)**

Bilbao, Sede, 16-X-1997

Angeles Libano

El trabajo que presentamos ahora constituye el segundo volumen de una obra que se gestó en su origen en el Congreso de Estudios Históricos, Vizcaya en la Edad Media, celebrado en esta ciudad, Bilbao, el mes de diciembre de 1984. Estuvieron presentes en este Congreso prestigiosos medievalistas, historiadores y filólogos que resaltaron la conveniencia de iniciar el proyecto de recogida de la onomástica, topónimia y la antropónimia vasca medieval, cuyas pautas había ya elaborado D. Julio Caro Baroja, en el año 1945. La empresa nos pareció atractiva y durante los años 1987 y 89 iniciamos nuestras consultas y la localización documental. El objetivo se centraría en la recopilación topográfica vasca o románica, que referida a esta Comunidad Autónoma y a la de Navarra, figuraría en los cartularios medievales, los cuales ofrecen información histórico-lingüística de gran valor para la historia y la lengua de las zonas geográficas apuntadas, es decir, nos centraríamos con exclusividad en las fuentes impresas. Contamos para ello con la comparación de algunos colegas medievalistas, así como la inestimable financiación de Euskaltzaindia.

Debo ahora reconocer que es para mi satisfacción presentar este segundo volumen en la sede central de esta Academia, bajo la atenta mirada del presidente Jean Haritschelhar y de la profesora y actual vicerrectora de la Universidad del País Vasco, Miren Azkarate. Recordaré al señor Haritschelhar que hace ahora algunos años, exactamente en el 89, se realizó la primera presentación de este trabajo, sin editar aún, pero ya completo, en las III. Jornadas de Onomástica, celebradas en Estella/Lizarra, en aquella ocasión el volumen de la obra estaba contenida en folios impresos por un sólo lado y encuadrados normalmente. Hoy podemos observar la realidad de la espléndida edición y encuadernación notablemente mejorada. Deseamos en este punto agradecer también la presencia de Miren Azkarate, pues desde su anterior Vicerrectorado, Euskara, en la Universidad del País Vasco, apoyó y colaboró decididamente a que esta obra llegase a buen puerto en su segundo volumen. Por ello, doy las gracias a ambos por su dedicación y empeño. Si bien el volumen anterior, el primero, abarcaba exclusivamente la letra A de la toponimia, es decir, de Aros, Abadiano hasta Azud en Navarra, en este segundo, logramos acomodar la información más importante de otra manera, de modo que se ha conseguido incluir en él desde la letra B hasta la G, inclusive. El esfuerzo y el tiempo que a esa tarea debimos de dedicar, tanto la autora de la obra, como el editor ha sido importante, pero consideramos el resultado obtenido muy satisfactorio, es decir, nos hemos podido acomodar a la realidad presupuestaria, respetando siempre la homogeneidad y fidelidad de los datos y el fondo de la obra. Así en este

volumen que tenemos aquí delante, mantenemos aquella información que desde el inicio de nuestro proyecto, pero hemos agrupado en una sola línea, y no en líneas diferentes, todas la variantes gráficas y fonéticas seguidas de su localización actual y del nombre del territorio. Estos dos aspectos, la localización actual y el nombre del territorio, figuraban en líneas aparte en el primer volumen, era un poco obligaciones de la informática, más que de la propia edición. Indico ahora que sólamente hay una línea con las variantes gráficas y en esa misma línea se localiza el territorio y el nombre actual. A continuación figura el contexto en el que se encuentra el topónimo y la localización de la obra, el documento, la página, etc. De este modo en cada página vamos eliminando muchas líneas que se convertirían al final en páginas completas. Para respetar el orden alfabetico estricto, he reservado entrada aparte para aquel topónimo cuya letra inicial difería de los demás, así por ejemplo, *Qadreita*, escrito con Q, aparecerá en el volumen, si alguna vez llega a publicarse el de la Q, y *Cadreita* con C, figura en este volumen que tienen Uds. aquí delante. En este mismo volumen tienen entrada aparte *Castillo* y *Gaztelu*, porque no sería coherente incluir *Gaztelu* en la C, o *Castillo* en la G, es decir, se trata de respetar el orden alfabetico. En conclusión, pretendemos ofrecer, al estudiioso y al profano, un elenco de datos topónimicos a partir del cual podrán elaborarse, creemos, de la mano de los medievalistas interesados trabajos y estudios que ayudarán a perfilar el intrincado camino que han corregido juntas la lengua vasca y la latina en la alta Edad Media y como recorren y conviven ahora, aquella y el castellano, ambas, y de acuerdo con las afirmaciones y conclusiones del maestro de la filología vasca y de la filología románica Luis Mitxelena, convivieron y conviven desde siempre en Alava, Guipuzcoa, Navarra y Vizcaya, áreas objeto de esta toponimia medieval.

Muchas gracias a todos por su presencia y atención.

LIBURU AURKEZPENA

Bilbo, egoitza, 1997-X-16

Miren Azkarate

Eskerrik asko. Aurreko hizlariek esan duten bezala, Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak duela urte batzuk sinatu zuten lankidetza-hitzarmenaren baruan kokatzen dira gaur aurkezten ditugun argitalpenak. Hor, hitzarmenean esaten da, bi erakundeen intereseko eta bi erakundeentzat baliagarri gerta daitezkeen lanak bultzatzea dela helburua, eta bide batez, bi erakundeen arteko harremanak sendotu eta lotura hesituak sortzea. Egia esan ez da bat ere zaila, helburuen bigarren parte hori betetzea euskaltzain osoetatik hasi eta eta urgazle eta batzordekideekin jarraituz, kide bat baino gehiago baikara Euskaltzaindian eta Euskal Herriko Unibertsitatean lanean dihardugunok, batzuetan gainera, goimailako karguak beteaz, gaur egun euskaltzain oso eta Euskal Herriko Unibertsitateko errektore den Pello Salaburu lekuko hartuaz. Egoera horrek, zer esanik ez, benetan errazten ditu bi erakundeen arteko harremanak, baina hitzarmenaren helburu nagusia, esango nuke, ez dela dagoeneko bi erakundeetan gaudenon arteko harremanak lotzea, hori aldez aurretik egina dago, erronka, erakunde bateko eta besteko kideak hurbiltzea da, eta batzuk eta besteek egiten dituzten lanak guztien esku jartzea, eta ez bakarrik euskaltzainen edo unibertsitarioen esku, esango nuke euskalgintzan ari diren guztien esku jarri beharko genituzkeela eta bi erakundeon ardura dela gainera hori gerta dadin gurari guztia egitea, eta nik uste dut diodanaren lekuoa ona dela eta hizlari bakoitzaren aurkezenak entzun ondoren,honezkero jabetuko zinetekela gaur aurkezten ditugun lanak bete-betean sartzen direla helburu honetan. Batetik, M.^a Angeles Libano eta Xabier Alberdi, biak, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, euskal gaiak hautatu dituzte beraien ikerlanetarako, eta unibertsitatean, ohikoa den zorroztasunez atertu eta aldiberean, hizkuntzaren normalkuntzarako benetan interesgarriak diren ondorioak atera dituzte. Beraz, bada unibertsitateko lana, bada Euskaltzaindiarentzat jakingarria eta kontuan hartzeko. Bestetik ohorezko euskaltzain dugun Pedro de Yrizar jaunak, unibertsitatean, nahiz unibertsitatetik kantzo, euskal dialektologian eta aditzaren arloan murgildu nahi duen edonorentzat ezinbestekotzat joko nukeen lana burutu du. Beraz, ez da zalantzak hitzarmenaren helburuetan bi erakundeentzat baliagarri gerta daitezkeen lanak izate horretan, bete-betean sartzen direla gaur aurkezten ditugun lanak. Alde horretatik, benetan zorionak eman nahi dizkiet hiru egileei, hitzarmenari edukia ematen eta gure helburuak betetzen lagundu digutelako. Nire esker ona azaldu nahi diot Ricardo Badiolari, badakit zenbat ordutako lana dagoen gauza hauek gestionatzen, inprentarekin harremanak eramatzen, probak zuzentzen, bidaltzen, ekartzen, gauza horiek egingo lituzkeen jenderik ez balego benetan liburuak ez genituzke azkenean mahaigainean izango. Eta bukatzeko, bi erakundeen arteko hitzarmenari opako nioke horrelako fruti ugari eman ditzala ondorengo urteotan.

* * *

Resumiendo brevemente lo que decía en euskara, como han dicho las personas que me han precedido en el uso de la palabra, Euskaltzaindia y la Universidad del País Vasco firmaron un acuerdo marco, dentro del cual se contemplaba el promover, incluso editar, obras que fuesen de interés para ambas instituciones y de paso también se quería conseguir una mayor relación entre las personas presentes en ambas instituciones. Es verdad que no es difícil conseguir esa unión o esa relación personal, puesto que más de un académico comparte a la vez la condición de profesor de la universidad en general, y más en concreto de la Universidad del País Vasco, empezando por nuestro actual rector Pello Salaburu que es académico de número desde hace bastantes años. Pero evidentemente la finalidad del acuerdo quedaría muy mermada si sólamente se limitase a una relación que ya existe, la finalidad es promover, el conseguir unir más a las personas de la universidad, unirlas con los miembros de Euskaltzaindia y viceversa. Y desde este punto de vista creo que las obras que presentamos hoy en día cumplen plenamente esa función. Por una parte, tenemos, tal como habrán escuchado en las intervenciones que han hecho los diversos autores, a la profesora M.^a Angeles Libano y al profesor Xabier Alberdi, que son profesores de la Universidad del País Vasco, que han elegido temas vascos para sus trabajos de investigación. Los han analizado con la exhaustividad y con el rigor que es habitual en los trabajos universitarios y a la vez han conseguido resultados que son muy de tener en cuenta en un proceso de normalización de la lengua vasca y que por tanto los académicos tenemos que tener en cuenta, sin lugar a dudas. Por otra parte, tenemos a D. Pedro de Yrizar cuyo trabajo sobre la morfología del verbo auxiliar en general, y en concreto el trabajo que presenta hoy en día sobre el *verbo auxiliar labortano*, es una referencia ineludible para cualquiera que en la universidad, o fuera de ella, quiera adentrarse en el mundo de la dialectología vasca y más en concreto del verbo vasco. Por lo tanto creo que los trabajos que hoy se presentan cumplen plenamente la función de ser de interés para las dos instituciones, y yo diría que además de interés para cualquier persona que trabaje en el mundo del euskara, tanto en el País Vasco, como en cualquier sitio. Por tanto no me queda más que felicitar de corazón a los tres autores que han realizado unas obras tan valiosas, expresar mi agradecimiento más sincero a Ricardo Badiola, que ha realizado un trabajo ingrato, callado y que pocas veces se suele tener en cuenta, es el trabajo de toda la gestión que supone editar tomos de este calibre, si empiezan a contar cuantas hojas tenemos, prefiero no sumarlo, lo que supone gestionar todo ésto con la imprenta, encargarse de mandar las pruebas, de recibir las correcciones a tiempo, de incordiar a los autores, que seguro que les han tenido que incordiar por que no entregaban —yo soy la primera que me tienen que incordiar con mucha razón—. Por lo tanto quiero agradecer de verdad esa gestión y no me queda más que desear que el acuerdo entre las dos instituciones siga dando unos frutos tan generosos en los años venideros.